

BERGARAKO UDALEKO PLANTILAKO OBRA ETA ZERBITZUBURU PLAZA BAT LEHIAKETA OPOSIZIO BIDEZ HORNITZEKO DEIALDIA

LEHENA. DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honen helburua, Obra eta Zerbitzuburu plaza bat txanda irekian oposizio-lehiaketaren bidez hornitzea da, Bergarako Udaleko funtzionarioen plantilako Administrazio Bereziko Azpieskala Teknikoko A2 sailkapen taldeari atxikia.

Hautatutako izangaia, Obra eta Zerbitzuburu lanpostura atxikia izango da.

Deialdi honen bidez betetzekoa den lanpostuak euskarazko 4. hizkuntz eskakizuna du atxikia, derrigortasun-datarekin.

Deialdi honen bidez betetzekoa den lanpostuak Udal honetako Retribuzio Taularen 18 mailari dagokion urteko lansari gordina jasoko du, balorazio berri bat egin eta beste maila bat aterako balitz berria aplikatuko zaiolarik lehen eguneko atzera eraginekin.

Lanpostuaren oinarrizko funtzioak ondorengoak dira:

- Obra eta Zerbitzuetako brigadetako lanak eta plantilak antolatu eta kontrola eraman.
- Brigadetako obra eta lanen proiektu eta aurrekontuak egin eta gestionatu.
- Udal-departamentu eta eraikinen garbitasuna eta mantentze-lanak zuzendu eta ikuskatu.
- Ur-zikinen sarea, lorategiak, parkeak, mendiak eta abarren mantentze-lanak.
- Kale-garbiketa, kale-seinalizazioa eta argiteria publikoaren mantentze-lanak, antolaketa eta hobetze-proiektuak egin eta zuzendaritza-lana aurrera eraman.
- Fakturak ikuskatu, publikoari harrera egin...
- Kontratazioa: mantentze-lanetako ekipoak, kontrola eta maniobra. Materialak erosteko kudeaketa-lanak. Biltegiaren kontrola.
- Kontrola: Bere menpeko zerbitzuen azken ikuskaritza-lanak egitea.
- Kanposantuen gestio teknikoa eta bertako langileen buru-lanak.
- Eskola publikoen mantentze-lanen ardura eta ikuskapena.
- Urbanizazio berrien kontrola eraman eta zaharren berritze-proiektuak egin eta guztien ikuskapen zuzenaren azken ardura.
- Bere kategoriari dagozkion agindutako beste lanak.

BIGARRENA. IZANGAIEN BALDINTZAK

Onartua izateko eta, hala badagokio, neurketan parte hartzeko, ondorengo baldintzak bete behar dituzte hautagaiek:

- a) Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea.

Aurkez daitezke, halaber, Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta haren ondorengoak eta bere ezkontide zuzenbidez banatu gabearen ondorengoak ere, hogeita bat urte baino gutxiago badituzte, edota gehiago izanik ere haien kontura bizi badira

- b) 16 urte beteak edukitzea.
- c) Lanpostuaren beraren eginkizunak normal betetzea galaraziko lukeen eritasunik eta tatxa fisikorik nahiz psikikorik ez edukitzea. Egoera hori bere garaian egiaztatu beharko da Enpresako Medikuntza zerbitzuak bakoitzari egingo dion Osasun azterketaren bidez.
- d) Diziplinazko espedientea dela medio, Estatuko, Autonomi Elkarteko nahiz udal erakundeen menpeko lanetik banandua ez izana, ezta ere herri eginkizunetan aritzeko.
- e) Indarrean dagoen araudiaren arabera legezko ezgaitasun edo bateraezintasun kasuren baten ez egotea, beti ere legeak ematen duen aukeratzeko eskubidea alde batera utzita.
- f) Arkitekto Teknikoa edo Obra Publikoetan injineru teknikari titulazioa esku artean izatea edo hura eskuratzeko ordaindu beharreko tasak ordainduta izatea.
- g) 4. hizkuntz eskakizunari dagokion euskara maila, derrigorrezkoa.

Oinarri honetan zerrendatutako baldintzak, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean bete eta kontratua egin arte mantendu egin beharko dira. g) azpiatalean ezartzen den baldintza bere unean kreditatu beharko da.

HIRUGARRENA. ESKABIDEEN AURKEZPENA

Lehiaketa-oposizioan onartua izateko eskatuz egindako eskabideak Bergarako Alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio, deialdi honen laburpena **Estatuko Aldizkari Ofizialean** argitaratu eta biharamunetik aurrera 20 egun naturaleko epean. Onartuak izateko ondoko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Izangaiek, eskabideak aurkezteko epearen amaiera datan, 2. Oinarrian jasotako baldintza guztiak eta bakoitza betetzen dituztela agerrarazi beharko dute. g) azpiatalean ezartzen diren baldintzak bere unean akreditatu beharko dira, halere.
- b) Era berean, lehiaketaldian baloratuko diren merituei buruzko datuak agertu eta jatorrizko agiri edo kopia konpultsatuen bidez ziurtatu egin beharko dituzte. Eskabidean agertu arren, eskabidearekin egiaztatzen ez diren meritu-datuak ez dira baloratuko.
- c) Merituak zerbitzuak egin direneko Administrazioek edo enpresek emandako ziurtagiriaren bidez akreditatu beharko dira, betetako funtzioak eta lan-harremanaren iraupena ondo zehaztuz. Arlo pribatuan izandako lan-esperientzia egiaztatzeko, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak emandako ziurtagiriak ere aurkeztu beharko dira.

Honako hauek dira aurkeztu beharrekoak:

— Herri Administrazioetan betetako zertzuak organo eskudunak luzatutako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira, kategoria profesionala eta betetako lanpostua, burututako funtzioak, lan egindako denbora eta lanaldi erregimena zehaztuz. Horiekin batera, lan-bizitza adierazten duen agiria aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzak emanda.

— Langile autonomoek, lizentzi fiskalaren kopia beharko dute, autonomoen erregimenera egindako kotizazioen ziurtagiria edo jarduera ekonomikoetarako zergan altan egondako denborari dagokion ziurtagiria, egindako lan profesionali dagokien dokumentazioaz gain.

— Prestakuntza ikastaroak egiaztatzeko, ziurtagiriaren kopia beharko da, ikastaroa eman duen erakundearen izena, ikastaroaren izena, iraupena, eta ahal bada programa. Ikastaroaren iraupena ordutan adierazi ezean, epaimahaiak ez du baloratuko.

e) Hizkuntz eskakizunaren ziurtagiria, 6. oinarrian ezarritakoaren arabera, euskarazko azterketa ez egiteko.

f) Eskabidean adierazi behar da Euskal Autonomi Erkidegoko zein hizkuntza ofizialetan egin nahi den azterketa.

g) Eragozpen fisikoak dituzten izangaiek, eskabidean zehaztu beharko dute azterketak egin ahal izateko denbora eta baliabide aldetik nolako egokitzapenak egin beharko diren eta premia hori ziurtatu. Ondoren, Epaimahaiak aztertu egingo ditu baldintza horiek.

h) Ondorengo dokumentazioa ere aurkeztu beharko da:

a.- 2. oinarriko c) azpiatalean eskatzen den titulu akademikoaren fotokopia konpultsatua.

b.- Funtzio publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea, eta diziplinazko espedientearen bidez Estatuko, Autonomi Erkidegoko edo Udal Administrazioetako zerbitzutik baztertua ez izanaren agiria edo zinpeko aitortpena. Halaber, bateraezintasunik edo ezgaitasun legalik ez duela egiaztatzen duen agiriren bat edo zinpeko aitortpena.

Behar bezala betetako eskabideak, NANaren egiaztatutako fotokopiarekin, Udal honetako Erregistro Nagusian edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikulua ezartzen duen moduan aurkeztu behar dira deialdi honen laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera 20 egun naturaleko epean; eta eskabideak aurkezteko epe barruan, kasuan kasuko, funtzionarioak datatu eta zigilatu beharko ditu. Lehiaketa- oposizioan onartua izateko eskatuz egindako eskabideak Bergarako Alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio.

LAUGARRENA. IZANGAIEN ONARPENA

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, Alkate-udalburuak onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onetsiko du. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarki-taulan argitaratuko da zerrenda hori, Epai-mahaiaren kideen izendapenarekin batera eta 10 egun naturaleko epea izango dute izangaiek erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik izango ez balitz, izangaien zerrenda behin betikotzat hartuko da. Erreklamaziorik balego, horiek onartu edo ezetsi egingo lirateke, behin betiko zerrenda onesten duen beste ebazpen baten bidez. Ebazpen hori Udaleko iragarki taulan argitaratuko da.

BOSGARRENA. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

5.1. Osaera: Deituriko hautaketa prozesuaren epaimahai kalifikatzailea ondokoak kontuan izanda eratuko da: Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legearen 60. artikuluan, ekainaren 7ko 896/91 Errege Dekretuaren 4. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 8/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoa. Epaimahaia mahaiburuak, idazkariak eta alkate-lehendakariak dekretu bidez erabakitako kideek osatuko dute eta inoiz ez dira izango bost baino gutxiago. Langileen ordezkariak izendatutako kide batek hartuko du parte epaimahaian. Epaimahaia osatzen duten titularren eta ordezkoen izen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki taulan argitaratuko da, onartuen eta baztertuen zerrendekin batera, behin alkatetza-lehendakaritzak izendatuta.

Udlean presentzia duten alderdi politikoen ordezkariak parte har dezakete begirale moduan.

5.2. Espezialitatea: Epaimahaiaren eraketa teknikoa izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiek izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

5.3. Abstentzioa eta errefusatzeari. Epaimahai kalifikatzailearen kideek ez dute esku hartuko eta alkate-lehendakariari jakinaraziko diote Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 28. artikuluan oharmandako gorabeheraren bat egonez gero, eta izangaiek mahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 29. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

5.4. Aholkulariak: Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

5.5. Eraketa eta lan egitaraua: Epaimahaia lehen proba egin aurretik eratuko da. Eratze ekitaldian epaimahaiko kide titular edo ordezko gehienek egon beharko dute. Era berean, ekitaldi horretan hautatze prozesuko egintza guztiak objektiboki eta era eraginkorrean antolatu, garatu eta ebaluatzeko neurri guztiak hartuko dira.

5.6. Jarduketa prozedura:

a) Epaimahaiaren jarduna, uneoro, Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak xedatutakoaren arabera izango da. Epaimahaia ezin osatu ahal izango da eta jardun ere ez, titularretako edo ordezkari diren kideetako hiru (3) behintzat bertan ez baldin badaude, Idazkaria kontuan hartu barik. Epaimahai kalifikatzailearen erabakiak bertan dauden kideen gehiengoak aldeko botoa emanda hartuko dira; boto berdinketa egonez gero, epaimahaiaren lehendakariaren kalitatezko botoa erabiliko da

berdinketa hausteko. Epaimahai kalifikatzaileko kide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik. Idazkariak hitza baino ez du izango.

b) Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

c) Epaimahaiak ezingo ditu deialdian iragarritako lanpostuen kopurua baino izangai gehiago hautatu. Betiere sortu daitezkeen kontratazio premiei erantzuteko proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari,.

d) Izangai batek ere gaitortuko ez balitu baztertzailak diren proba guztiak, deialdia hutsik aitortuko da.

SEIGARRENA. OPOSIZIOALDIA

Deialdi honetako azterketa guztiak Euskal Autonomi Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean egin ahal izango dira, izangai bakoitzak eskabidean azaldutakoaren arabera.

Ariketa bakoitzerako deialdi bakarra egingo da. Epaimahaiak azterketak egiteko finkatutako toki, egun eta orduan agertzen ez diren izangaiak hautaketa-prozeduratik baztertuta geldituko dira behin betiko, ez agertzeko arrazoia egiaztatuko balute ere.

Idatzizko ariketak egiterakoan, ahal bada, izangaien anonimatua bermatuko da.

Epaimahaiak erabaki ahal izango du ariketa bat baino gehiago egun berdinean egitea.

Oposizioaldiak ondoko ariketa hauek izango ditu:

1.- Ariketa. Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

1. Eranskinean ezarritako gai espezifikoei buruzko test eratako galderei erantzutean datza. Gehienez 15 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 7,5 puntu lortu behar dira hurrengo frogara pasatzeko

2.- Ariketa. Derrigorrezkoa eta baztertzaila

Lanpostuaren funtzioak kontuan hartuz proposatutako gaiari/ei buruz aurrez idatzitako txostenaren ahozko aurkezpena edo/eta zenbait ariketa praktiko egitean datza Epaimahaiak ariketa hau ahoz azaltzea edo defendatzea eskatu ahal izango die izangaiei. Gehienez 50 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 25 puntu lortu behar dira hurrengo frogara pasatzeko.

3.- Ariketa. Derrigorrezkoa eta baztertzaila.

Euskarako frogak. Izangaien euskara maila neurtzeko ahozko eta idatzizko frogak egingo dira. Derrigorrezko 4. hizkuntza eskakizunari dagokion euskara maila dutela egiaztatuko beharko dute. Ez da punturik emango eta izangaiak gai edo ezgai sailkatuko dira, frogak hau gaitortzen ez dutenek hautaketa bidetik baztertuta geldituko dira.

Ez dute frogak hau egin beharrik izango ziurtatzen dutenak 4. hizkuntza eskakizunarekin parekatutako agiriren baten jabe direla, betiere, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen

Europako Erreferentzi Marko Bateria egokitzeko apirilaren 8ko 64/2008 Dekretuak jasotakoaren arabera.

Aurkeztutako inork egiaztatzen ez badu 4. hizkuntza eskakizuna, 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatu dutenek jarraituko dute prozesuarekin. Egiaztapen hau froga hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

4.- Ariketa. Derrigorrezkoa eta baztertzalea.

II. eranskinean ezarritako gai komunei buruz Epaimahaiak prestatuko test eratako galdera-sorta erantzutean datza. Gehienez 5 punturekin baloratuko da, eta gutxienez 2,5 puntu lortu behar dira azterketa gainditzeko

5.-Ariketa. Derrigorrezkoa eta baztertzalea.

Lanpostuaren profilarik egokitzen den jakiteko ariketa/k egin beharko da/dira: test psikoteknikoak, elkarrizketa... eta abarrek osatuko dute ariketa hau. Epaimahaiak erabakiko du zelakoak eta bakoitzaren puntuazioa.

Ariketa honek gehienez ere 20 puntu izango ditu, eta atal bakoitzean emandako puntuazioaren %50a lortzen ez duten izangaiak baztertuak izango dira.

ZAZPIGARRENA. LEHIAKETA ALDIA

Baloratuko diren merezimenduak ondoko hauek izango dira:

1. Lanesperientzia:

a) Administrazio publikoan, antzeko betekizunak eta ardurak dituzten lanpostuetan: 0,2 puntu emango dira lan egindako hileko, eta, gehienez, 10 puntu.

b) 0,1 puntu emango dira enpresan pribatuetan Administrazio Publikoari aholkularitzako zerbitzuak ematen lan egindako hil bakoitzeko eta gehienez, 4 puntu emango dira.

Lanaldi partzialetan emandako zerbitzuak proportzioan baloratuko dira.

2. Prestakuntza-ikastaroak:

— IVAPek antolatutako hirigintzari buruzko ikastaro osoa: 1 puntu.

— Lanpostuaren betekizunekin lotutako ikastaroak baloratuko dira, eta, gehienez, 5 puntu emango dira, hurrenkera honi jarraituz:

— 0,50 puntu emango dira 20 orduetik 50 ordu bitarteko ikastaro bakoitzagatik.

— Puntu 1 emango da 51 orduetik 75 ordu bitarteko ikastaro bakoitzagatik.

— 1,50 puntu emango dira 75 orduetik gorako ikastaro bakoitzagatik.

Zentro ofizialetan egindako edo zentro horiek homologatutako ikastaroak baino ez ditu aintzat hartuko Epaimahaiak. Zentro hauek dute izaera hori: INAP, IVAP, elkarte profesionalek, eskola ofizialek eta unibertsitateek.

Ez dira aintzat hartuko 20 ordu baino gutxiagoko ikastaroak edo ordu-kopurua zehaztu gabe dutenak.

Epaimahaiak, izangaien kopuruaren arabera, azkartasuna eta eraginkortasunaren mesedetan, merezimenduen balorazioa atzeratu eta oposizioaldia hasi ondoren burutu ahal izango du. Edozein kasutan, lehiaketaldia bukatuta egon beharko da oposizioaren azken azterketa zuzendu baino lehen.

ZORTZIGARRENA. EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA

Izangaiaren azken kalifikazioa, proba baztertzailerak gainditu ondoren, oposizio-aldiko eta lehiaketa-aldiko puntuak batuta aterako da eta kalifikazio horrek behin betiko puntuazio hurrenkera erabakiko du.

Hautaketa-probetan Epaimahaiak ezin izango du deitutako plazak baino izangai-kopuru handiagorik gaindituztat eman. Aurretik esandakoaren kontra doan bestelako edozein proposamen erabat deusezkoa izango da.

Epaimahaiak, merezimenduak baloratu eta ariketak kalifikatu ondoren, lehiaketa-oposizioa gainditu duen izangaiaren izena argitaratuko du. Era berean, hautaketa-prozedura gainditu duten izangai bakoitzaren behin betiko puntuazioa argitaratuko du, 9. oinarrian ezarritakoa betetzeko.

Izangaiek, behin betiko emaitzak argitaratu ondoren, 10 eguneko epea izango dute Epaimahaiaren aurrean erreklamazioak egiteko. Epe hau bukatu eta gero, Epaimahaiak puntu gehien lortu duen izangaiaren behin betiko izendapen-proposamena egingo dio Alkatetzari.

Izangaietako inork ariketa baztertzailerak gaindituko ez balu, epaimahaiak plaza hutsik laga dezake.

BEDERATZIGARRENA. PRAKTIKALDIA

Proposatutako izangaia praktikaldiko funtzionario izendatuko da. Praktikaldiak 6 hilabete iraungo du.

Aipatutako praktikaldia bukatu aurretik, praktikaldian dagoen funtzionarioaren buruak txosten bat egingo du. Bertan, ondoko gaitasunak hartuko ditu kontuan: lanerako eta aginterako erakutsitako gaitasuna eta errendimendu profesionala; ardura eta trebezia; lanean erakutsitako interesa, jarrera eta ekimena. Era berean, lan-taldean integratzeko erakutsitako gaitasuna ere kontuan hartuko da.

Gobernazio batzordeak, txostena aztertutik eta, hala dagokionean, beharrezkotzat jotzen dituzten osagarritzko jarduketan ondoren, kasuan kasuko izendapen-proposamena egingo dio Alkate-udalburuari. Edozein kasutan, egindako txostena kontrakoa baldin bada, beharrezkotzat jotzen dituen alegazioak egiteko aukera emango zaio interesatuari.

Praktikaldia egin duen funtzionarioak praktikaldia gaindituko ez balu, karrerako funtzionario izendatzeko eskubide guztiak galduko lituzke.

HAMARGARRENA. PROZESUAREN ARGITALPENAK

Prozesu honetan argitaratu beharrekoak (onartuen eta baztertuen zerrenda, oposizioaldiko emaitzak, lehiaketaldiaren emaitzak...) Bergarako Udaleko Web orrian ere argitaratuko dira(www.bergara.net).

Argitarapen honek osagarri izaera du eta eragin guztietarako balio izango duenak Udaleko iragarki taulan argitaratutakoak izango dira.

Datu pertsonalen babeserako araudiari jarraituz, edozein izangai edo partehartzailek izango du bere datuak eskuratu, zuzendu edo ezabatzeko eskubidea, horretarako

eskaera aurkeztu beharko du helbide honetara bidalitako idatziaren bitartez: Bergarako Udala, San Martin de Agirre plaza 1, 20570 Bergara.

HAMAIKAGARRENA. GORABEHERAK

Epaimahai kalifikatzaileak eskumena dauka sor daitezkeen zalantzak argitzeko eta lehiaketa-oposizioaren martxa ona zaintzeko beharrezko diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan eta hemen aplika daitezkeen arautegi osagarrian xedatu ez den kasuetarako.

HAMABIGARRENA. INPUGNAZIOAK

Deialdi hau, honen oinarriak eta horietatik eta epaimahaiaren jardueratik erator daitezkeen egintza administratiboak inpugnatu ahal izango dituzte interesatuek, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako epe eta moduan.

HAMAHIRUGARRENA. DOKUMENTAZIOA ITZULTZEA

Instantziarekin batera aurkeztu den dokumentazioa jasotzeko eskubidea izango dute aurkeztu diren izangaiek, kontratatuko denak izan ezik.

Hautaketa-prozesua bukatu eta 3 hilabeteko epean jasotzen ez den dokumentazioa txikitu eta bota egingo du Udalak.

I ERASKINA

GAI ESPEZIFIKOAK

1. Proiektuen kudeaketa Administrazio Publikoan. Arkitektura instituzionala, administrazio-arkitektura, monumentu-arkitektura, kirol-arkitektura, laguntza-arkitektura, osasun-arkitektura, etab. Proiektu eta obren txostenak, tramitazioa, jarraipena eta kontrola.
2. Telekomunikazioak. Indarrean dagoen Araudia.
3. Eraikinen mantentze-lanak. Mantentze-lan prebentibo eta zuzentzailea. Mantentze-lanen eskuliburua. Ohiko eragiketa eta maiztasunak. Mantentze-lanetarako programa informatikoak.
4. Errepideen zoruak: motak, ezaugarriak eta kalkulua.
5. Zoruen berrikuntza arina.
6. Errepideetako seinaleztapen horizontala.
7. Obren seinaleztapena.
8. Herriko argiteria. Teknikak. Arautegia.
9. Luminariak. Optika-taldeak diseinatzea. Motak eta reglajeak. Nola aukeratu luminariak. Elektrizitate-ukipenen aurkako babes-mailak. Hermetikotasuna. Osagaiak.
10. Obra zibil eta elektrikoa. Zimentazioa. Lubakiak. Kutxetak. Sareak kalkulatu eta dimentsionatzea. Lurrean jartzea.
11. Argiteria publikoaren bestelako osagaiak. Eroaleak: argiteria publikoan erabilitako eroale-mota desberdinen ezaugarri eta nolakotasunak, abantailak eta desabantailak.
12. Pizteko sistemak. Kalkulu fotoelektrikoak. Erloju-etengailuak. Programadore astronomikoak. Maneiatzeko eta babesteko erabilitako materialak.
13. Kanpoko argiteria. Diseinatzeko irizpideak. Parametro desberdinen ohiko balioak. Argi-puntuak ezartzea: irtenbideak.
14. Kanpoko argiteria kalkulatzeko metodoak, puntuz puntukoa, hurbilpenezko kalkuluak, ordenadore bidezko kalkulu zenbakizkoa, e.a.
15. Argiteria publikoa iraunaraztea. Iraunarazte-motak: prebentzioa, programa bidezkoa, kasuala, e.a. Argiteria publikoa iraunarazteko zerbitzua nola antolatu. Iraunarazte-eragiketak. Giza baliabideak eta baliabide laguntzaileak. Iraunarazte-kostuak.
16. Fluxua murriztuta energia aurrezteko sistemak. Oinarrizko jakingaiak: hasierako balioak eta murriztu ahalakoak.
Argiteria publikoagatik tarifak: deskribapena, osagaiak. Gainkarguak. Tarifa egokia nola aukeratu (adibideak eman). Potentzi faktorea zuzentzea (adibidea).
Argiteria publikoaren energi etekinaren faktoreak. Argi-efikazia. Elektrizitate-galerak. Nola jokatu.
17. Lurzoruaren sailkapena. Lurzoru-mota bakoitzari aplikagarria zaion erregimena.
18. Obra-proiektuak: Motak, faseak, agiriak eta onarpena. Objektua eta edukia. Pleguak eta betekizun teknikoak.

19. Urbanizatzeko proiektuak: Kontzeptua eta objektua; determinazioak; agiriak. Urbanizatzeko proiektua egin eta onartzea. Obrak onartu eta kitatzea, behin-behinekoz nahiz behin betikoz. Berme-epeak.
20. Neurketak eta aurrekontuak: Programa eta edukia. Neurtzeko irizpideak. Prezioen azterketa. Prezio-motak. Obren kitapena.
21. Udal eraikinen mantentze-lanak eta birgaitzea: Aurrealdeak, teilatuak, instalazioak, estaldurak etab. Helburuak, antolaketa.
22. Hiriko mantentze-lanak: Hiri-altzariak, haurren jolasak, zoladurak. Helburuak, antolaketa.
23. Mantentze-lanen kontrola.
24. Herri barruko zirkulazioaren antolamendua. Herri barruko seinale horizontalak eta bertikalak.
25. Gipuzkoako bide eta errepideak. 17/1994 Foru Araua. Sailkapena. Jabari publikoa. Babesguneak.
26. Saneamendu-sarea. Sistemak. Sare-motak. Kolektoreak, hodiak, junturak, erregistroak eta gailu osagarriak.
27. Herriko hondakin-urak eta arazketa-teknikak.
28. Edateko ura banatzeko sarea: Hodi-motak, junturak eta gailu osagarriak.
29. Eraikinetako gas-instalazioak. Arautegia eta arauketa.
30. Berokuntzako instalazioak eraikinetan. Arautegia eta arauketa.
31. Uraren barne-instalazioak. Arautegia eta arauketa.
32. Eraikinetako elektrizitate-instalazioak: Hornidura, babesak, kanalizazioak. Arautegia eta arauketa.
33. Eraikinetako telekomunikazioak. Arautegia eta arauketa.
34. Eraikuntzako Oinarrizko Araua: Eraikinetako suteen kontrako babes-baldintzak. "NBE-CPI-96".
35. Behe Tentsioaren Elektroteknikako Erregelamendua, Jarraibide Tekniko Osagarriak eta horiekin bat datorren gainerako araudia.
36. Eraikinen irisgarritasuna eta ingurunea. Gutxieneko neurriak. Araudia.
37. Oztopo arkitektonikoak kentzea. Araudia. Bide, espaloi, oinezkoentzako pasagune, eskailera, arrapala, aparkaleku eta abarren diseinu trazatua. Bideragarritasunaren Legea.
38. Lan-arriskuen prebentzioa eraikuntzan eta eraikinen mantentze-lanetan. Legeria
39. Laneko Segurtasun eta Higieneko Ordenantza Orokorra eta Laneko Arriskuen Prebentzioari dagokiona.
40. Larrialdietako udal planak.
41. Hiriko loregintza. Parkeak. Plazak eta bideak. Txoritegiak, mahats-parrak. Jolasak. Animaliak.

II. ERANSKINA GAI KOMUNAK

1. Udalerria. Udalaren aginte-ahalmenak. Udal-antolamendua: ezinbesteko organoak eta organo osagarriak. Korporazio-agintaldiaren eraketa, iraunaldi eta bukaera. Alkatea: eskuduntzak. Udalbatzarra: osaketa eta eskuduntzak. Gobernu-batzarra: osaketa eta eskuduntzak. Alkate-ordeak. Zinegotzi ordezkariak. Informazio-batzordeak.
2. Jardunbide administratiboa (I): izaera eta xedeak. Lege-erregulazioa. Jardunbide administratiboaren printzipio nagusiak. Jardunbide administratiboan interesa duten pertsonak. Hiritarren eskubideak, bereziki, erregistro eta artxiboetarako sarrera.
3. Jardunbide administratiboa (II): Amaierak eta epeak. Jardunbidearen hasiera, antolamendua eta instrukzioa: froga. Interesatuen esku-hartzea. Jardunbidearen amaiera: ebazpena. Itundutako amaiera. Beste eratako bateko amaierak: atzera egitea, uko egitea eta iraungipena.
4. Toki Zerbitzu publikoak: kontzeptua eta kudeaketa-moduak. Zerbitzuen zeharkako kudeaketa. Zuzeneko kudeaketa: kontzeptua, motak eta erregimena.
5. Toki Erakundeen ondasunak: kontzeptua eta sailkapena. Kontserbazioa eta babesa. Bere ondasunen gain Administrazioak dituen pribilegioak.
6. Administrazioaren kontratuak: Administrazio-kontratuen eta Administrazio Publikoek egiten dituzten bestelako kontratuen arteko bereizketa-irizpideak. Indarrean dagoen arautegia: barne eta kanpo dauden kontratuak. Kontratu horiek egiteko organo eskudunak. Kontratatzeko ahalmena: debekuak, sailkapena eta enpresen erregistroa.
7. Administrazioarekin kontratatzeko eskatzen diren bermeak. Kontratazio-jardunbidea. Kontratu administratiboan balio gabetasuna. Prezioen berraztertzea. Kontratuen iraungipena.
8. Obra-kontratua. Erregimen juridikoa. Zerbitzu publikoen kudeaketa- eta hornidura-kontratuen erregimena. Laguntza- eta aholkularitza-kontratuak eta Administrazioaren ez-ohiko lan espezifiko eta zehatzen kontratuak.
9. Administrazio Publikoen ondare-erantzukizuna: indarrean dagoen erregimena. Eskatzeko jardunbideak: ohikoa eta laburra. Agintarien eta pertsonalaren erantzukizuna.
10. Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak. Egoera administratiboak. Ordainketa-sistema. Diziplina-erregimena: hutsegite, zigorrak eta jardunbidea. Administrazio Publikoen zerbitzura dagoen pertsonalaren bateraezintasunak.